



Bi ibilbide antolatu dituzte, luzea eta motza, adinaren arabera nekerik gabe egiteko.

## Autorik gabeko gunea

Hasi da Mugikortasun Iraunkorraren Astea eta bizikletak izango dira nagusi gaur Okendo inguruan

Autoen ordez bizikletak ibiliko dira gaur Okendon. Azoka txiki bat jarriko da txirringa eta hauen inguruko gauzak saldu, erosi edo trukatzeko. Ondoren txirrin-duan ibilaldia egiteko aukera izango da eta azkenik nahi dutenek bizikletarekin duten trebetasuna erakusteko. Irailaren 26ra arte luzatuko den Mugikortasun Iraunkorraren Asteko egitaraukoak dira gaurko jarduerak. • 5. orrialdean



Unax Martin  
lau urteko  
mutikoa  
"Ander"  
filmeko aktore  
/4. orrialdea

### ALBISTEAK ■ 3

**Factory, stockeko produktuen Lasarte-Oriako lehen azoka igande goizean**

### KIROLA ■ 6

**Indartuz-Ostadar hitzarmena, krosetako korrikalarien prestakuntza laguntzeko**

### KULTURA ■ 8


**Amaraun ludotekak ireki ditu ateak bi eta zazpi urte arteko haurrentzat**

## Sute txikia Izurde tabernan

Su hiltzaileen hiru kamioi, polizia eta ikusminak erakarririk jendetza elkartu ziren atzo arratsaldeko 6ak inguruan Mutiozabal kaleko 7an dagoen Izurde taberna kanpokaldean. Itxuraz sute handia bazirudien ere, zorionez ke laino handi eta beroa zen, baina surik ez. Suhiltzaileek persiana bota, oxigenoa erabiliz sartu eta sutan utzitako sarragin batek eragin zuela ikusi zuten. Gero tabernatik kea ateratzen izan zuten lana baina ordubete ondoren normaltasuna nagusitu zen kalean.



Persiana zulatu eta oxigenoa erabili zuten suhiltzaileek barrura sartzeko.



**ADURIZ DE LASARTE S.A**

Loidi kalea 3 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 361278

Eguedietan ere hartzen dugu jendea, ordua aurrez eskatuz gero.

Proba ezazu gure laser zerbitzua

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

**MAITE**  
ESTETIKAKO ARETOA

Uistin kalea, z/g • Tel.: 943 370845 • LASARTE-ORIA

**Neure kabuz**



**Xuntas podemos!!**

Joan den asteburuan emakumezkoen estropada izan zen berrikuntza nagusia Donostiako badian.

Hondartzara errauskailuaren aurka edo zaborren kudeaketan eredu jasangarriago baten alde egitera giza katean jaitsi ziren herritarrek ahaztu gabe.

Estropadatan ohiko jendetza izan zen. Baina, kirol zaletasunaz gain emakumeak nola lehiatu ziren ikusi ahal izan genuen lehendabizikoz. Arraunean egiten duten emakumeak beti izan dira baina, Kontxako estropadak bezalako frogak nagusi batean ez dute inoiz lekurik izan.

Ezkutuko errealitate izatetik, publiko aurrean ageriko izatera pasatzen denean egiten dira honelakoak egiazko.

Arraunlari batentzako Kontxan arraun egin ahal izatea ohore handia izan behar du. Datozen belaualdiei bidea zabaltzea bezain bestekoa eta hori emakume hauek egin dute aruten.

Emakumeak arraunean zituzten zortzi traineruek egin zuten lehendabizikoz Donostian itsas arrastoa. Historiak ondo gordeko duen datua izango da. Egindako arrastok ilusioarekin izan bai du lotura estua.

Irabazle galiziarren arraun bakoitzean irakur zitekeen esaldiarekin gelditu naiz, Xuntas podemos zioen. Gai eta arlo gehiagotan gertatzen da hau: elkartuta errazagoa da bidea. Bestela, nola egin aurre gertatzen ari diren bidegabeberia gutziet?

Ixiar Arteaga

**Zorion-agurrak**



**Pili**

Ama izan gabe inguruen haur gehien dituenarentzako, zorionak! Lankideen partetik.



**Nagore**

Zorionak printzesa. Bi muxu potolo familia guztiaren partetik.



**Unai**

Nahiz eta berandu izan, zorionak familaren partetik. Ondo pasa.



**Gorka**

Zorionak bederatzigarren urtebetetzearen gurasoen partetik.



**Nahia**

Monja jantzi horren azpin elementu earra. Zorionak zure lankideen partetik.



**Haizea**

Zorionak Haizea! Aita, ama, Amagoia, Irati eta lkerren partetik.



**Amaia**

Pila pila patata tortila. Jalgin faltan botako zaitugu.



**Jon**

Zorionak txapeldun eta 9 muxu handi, amatxo eta famili guztia.

**Guardiak**

- Ostirala, 19**  
Urbistondo, San Frantzisko 1  
Tel.: 943 366567
- Larunbata, 20**  
Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652
- Igandea, 21**  
Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652
- Astelehena, 22**  
Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652
- Asteartea, 23**  
De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151
- Asteazkena, 24**  
Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774
- Osteguna, 25**  
Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Telefonoak**

- Osasuna / Larrialdia**
- Osasun Zentroa ... 943 007960
- DYA ... 943 370000
- Gurutze Gorria ... 943 363953
- Udaltzainak ... 943 362442
- Ertzaintza ... 943 288888
- SOS Deiak ... 112
- Udala**
- Erregistroa ... 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia ... 943376182
- Kulturetxea ... 943376181
- Bakezko epaitegia ... 943371629
- Zerbitzu Sozialak ... 943376179
- Zentro Zibikoa ... 943363958
- KIUB ... 943361605
- Udal euskaltegia ... 943361621
- Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

**Azoka txikia**

**Eskaientza inmobiliarioak**

- Pisua alokatzen dut, erdialdean, berritua.  
Tel.: 688 670442/ 680 216645. (Marilu)

- Lasarte-Oria eta ingurunean gela bat hartuko nuke errentan.  
Tel.: 669 719120 (Julen)

**Salerosketak**

- Volkswagen California furgoneta salgai. T-4 modelua, 2,5 TDI txuria salgai. 2000. urtekoa, guztiz ekipatua eta oso egoera onean, bidaiatzeko aproposa.  
Tel.: 649 895858

- Salgai trastero bat Zumaburuan. 5 metro karratu ditu eta lehioa dauka. Tel.: 677 983 068.

- Dendan ipintzeko isla motako frigorifiko bat erosiko nuke.  
Tel.: 696 130549.

**Lan-eskaientzak**

- Pertsona bat behar da haur bat zaintzeko astelehenetik ostegunera arratsaldeko 17:30etik 19:30era Lasarte-orian.  
Tel.: 699 243108.

- Neska euskaldun bat behar da irailan hasi eta epe luzerako 2 haur zaintzeko eta nohizbehinka

etxeko lanak egiteko. Astean 10 ordu, astelehenetik ostegunera 15:30etik 18:00etara.  
Tel.: 635755666 (Begoña)

- Begirale bat behar da ikasturte osoan lanean aritzeko. Baloratu da: begirale titulua eta esperientzia izatea, trebezia sozialak izatea, informatika ezagutzak.  
Tel.: 943 371448, posta elektronikoa: zerbitzuak@ttakun.com.

- Txintxarri aldizkariak banatzailen lan-poltsa bat osatu nahi du. Interesatuak deitu dezatela 943 366858 telefonora edo mezu bat bidali txintxarri@ttakun.com helbidera.

- Pertsona bat behar da haur bat zaintzen laguntzeko. 655 700253

**Lan-eskariak**

- Emakume gaztea eskaientzen da etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko, eguerdiko 12:00etatik arratsaldeko 16:00ak bitartean, astelehenetik ostiralera. Tel.: 661 182178.

- Neska bat eskaientzen da lan egiteko gogoarekin. Garbiketarako edo haurrak eta helduak zaintzeko. Tel.: 689 200 659.

- Emakume bat eskaientzen da atarietako garbiketa lanak egiteko. Tel.: 626 877369.

**Oharretarako:**

943 366858 • txintxarri@ttakun.com • Geltoki kalea 4

**Jaiotzak**

Agustin Doval Lasa, irailaren 12an.  
Alain Sanchez Zabala, irailaren 8an.

**Heriotzak**

Santiago del Campo Arostegi, irailaren 14an 85 urte zituela.  
Araceli Urbina Gomez, irailaren 13an 87 urte zituela.  
Rosario Ormazabal Iceta, irailaren 11n 81 urte zituela.  
Micaela Arraztio Saralegui, irailaren 9an 93 urte zituela.

**Gazte Informazioa**

Manuel Lekuona kulturetxea  
Tel.: 943 376181

---

**Udaltzain postuak**

Lasarte-Oriako Udalean 6 udaltzain-lanpostu betetzeko oposizioa. Bete behar diren baldintzen berri eta informazioa jasotzeko Lasarte-Oriako Udalean, 943 376055 telefono zenbakian edo udala @lasarte-oria.org helbide elektronikoan. Eskera arkezteko epea urriaren 2arte luzatzen da.

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**KULTURA SAILA**

# Lasarte-Oriako Stock eta Saldoen I. Factory Feria

■ Igande honetan merke eta kalitatez erosteko aukera Michelin gunean

TXINTXARRI

Lasarte-Orian lehen aldiz ospatuko den azoka hau inguruko herri askotan behin baino gehiagotan egin dute eta herritarren erantzuna beti izan da ona, urtetik urtera emaitza hobeak izaten dituzte. Lasarte-Orian ez da gutxiago izango eta merkatari eta erosleen alde egin den apustua martxan dago. Salerosketa ona egiteaz gain merkatari txikiak heuren burua ezagutzera emango dute era honetan, horrela herritarrek ezagutzen ez zituzten denda asko ezagutuko dituzte gero urtean zehar erostera joateko.

Asteartean, hilaren 16ean Lasarte-Oriako Stocken Feriaren aurkezpena egin zen udaletxe batzar aretoan. Bertan, Ricardo Ortega Merkatari Saileko burua, Merkatari Laguntza Teknikoa emateko Kabineteko (MLTK) arduraduna den Gorka Goikoetxea eta Aterpeko ordezkariek egon ziren azokan zertan datzan azaltzeko.

Merkataritzako Mahaietik sortutako ideia izan dela azaldu zuten, Aterpea, eta MLTK-ekin batera Udalak lagunduko duen ekintza bat. Batez ere Gorka Goikoetxearen lana azpimarratu zuen Ricardo Ortega antolaketa orokorrean denen arteko elkarlana izan den arren. Udalak instalazioak jarrita eta diruz lagunduko du Stockaren



Antolatzaileek emaitza onak espero dituzte izena emateko zerrenda bete eta gero

azoka honetan. Honekin Lasarte-Oriako merkatari bultzatzea eta udalerriarren irudia inguruetan proiektatzea lortu nahi da. Aukera bikaina izango da bai kontsumitzaileentzatz eta baita merkatarientzat. Kalitate bikaineko produktuak eskuratu ahal izango dira prezio merkean, arropak, oinetakoak, lurriregietako gauzak, tresna elektrikoak eta abar.

Parte hartzaile gehienak herrikoak izango dira baina Hernaniko hiru eta Tudelako beste

bat ere han izango dira. Herritik pixka bat haratago ireki da horrela eskaintza interesgarriagoa eta zabalagoa izan dadin.

Azoka hau beste herri batzuetan ospatu izan da eta urtetik urtera emitza hobeak lortu dira. Arrakastuak suertatzen dira horrelako azokak. Antolatzaileek ez zekiten zer nolako erantzuna egongo zen parte hartzaileen aldetik eta 22 izan zen hasieratik muga moduan jarritako izen emate kopurua. Zerrenda betetzea lortu dute eta pozik agertu dira antolatzaileek azokaren

prebisioei begira.

Azoka irailaren 21ean ospatuko da Michelingo tenis-pistetako kirol-barrutian eta erakustokien gain haurrentzako gaztelu puzgarriak eta jolasak egongo dira. Egun osoan musikaz girotuko da azoka, goizeko 10etatik gau parteko 21:00ak arte. Sartu ahal izateko euro bateko sarrera ordaindu beharko da baina txartelak Zumaiako bainuetxean tratamendua egiteko bi sarrera bikoitzen zozketan parte hartzeko balio izango du. •

## PARTEHARTZE KARPA LOHP Atsobakaren izango da

Lasarte-Oriako Herritarren Plataformak Herritarren Partehartze Karpa bihar, larunbata, kalera aterako du berriz ere. Atsobakar auzoan izango dira goizeko 11:00etatik 13:00ak bitartean.

“Ez gaude ohitutak politikoa kalean ikustera hauteskunde garaia ez baldin bada, eta arraro egiten zaigu gure iritzia eskatu eta entzuten digutenean. Hau aldatu nahi dugu”, diote ekimenaren antolatzaileek. Partehartze Karpara gerturatzeko aukerarik ez duenak, Plataformarekin herremantetan jarri daitezke 943-100 658 telefono zenbakian edo pclohp@hotmail.com helbidean. •

## FORO IBEROAMERIKARRA Alkatea Foro Iberoamerikarrean

Gazteria eta Garapena; Tokiko Politika Publikoak izenburupean El Salvadorren ospatu zen Tokiko Gobernuen Iberoamerikako III. Foroan parte hartu zuen Ana Urchueguia Alkatea, irailaren 4ean, Udalerri eta Probintzien Espainiako Federazioko ordezkarri gisa. Bertan Latinoamerikako eta Europako 21 herrialdetako 170 alkate baino gehiago bildu ziren. Udaletik helarazi dutenez, elkarren arteko estrategia bat errotzea eta urrian El Salvadorren bertan izango den Estatuburu eta Gobernuburuen XVIII. Iberoamerikako Goi-Bilerarako ekarpenak egitea izan zen foroaren helburua. •

## Musika

### Gune berri bat entsaiatzeko

Musikarekin betetzen dute Lasarte-Oriatar askok bere aisialdiko denbora baina normalean ez dute horretarako leku aproposik izaten. Gazteria eta Festetako sailak erraztasunak eman nahi ditu eta Oztaran auzoko Parapeto erakina utziko du nahi duenak erabili dezan.

Horren truke, lokala errespetatu, zaindu eta garbi mantendu beharko dute erabiltzaileek eta noski, entsaiatzeko ezarritako txandak errespetatu.

Gunea erabiltzeko izena emateko edo informazioa gehiago jasotzeko Manuel Lekuona kultur etxean dagoen



Herriko musikariek entsaiatzeko toki bat izango dute

Gazteen Informaziorako Bulegoan egin daiteke.

Gazteria eta Festetako sailako lehendakari Jesus Maria Zaballosek azaldu duenez,

“entsaiatzeko toki bat eskaini eta baita maketa lehiaketaren bidez musikan dabilen gazteen aldeko apustua egin da musikagintzan jarraitu dezaten”. •

### N-1 eko zubia

Hiritarregandik jasotako kekek direla eta Udalak idatzitako bidali zuen Foru Aldundira N-1 errepideko zubiak, Oztaran auzotik pasatzerakoan, egoera txarrean dagoen baranda duela salatzeko. Bide Azpiegiturarako diputatuaren Eneko Goiak adierazi du beren helburua hesiaren konponketa lanak lehen bai lehen hastea dela eta emergentziarako konponketa proiektua prestatzen ari direla azpiegiturak hala eskatzen duelako. Gainera, Goiak azaldu duenez, konponketa lanek zailtasunak eragingo dituzte trafikoa dentsitate handiko puntua delako, horregatik ahalik eta egokien zehaztuko dute dena. •

### IKASTAROA

#### Frigorista izateko ikastaroa

Lasarte-Oriako Udalak frigorista espezialitatean prestatzeko ikastaro bat eskainiko du urriaren 10etik azaaroaren 28ra, INEMen bitartez. Elektrizitateko ezaguerak dituzten eta langabezian dauden pertsonen zuzenduta dago nagusiki. Ikastaroan parte hartzeko interesa duenak Udaleko Prestakuntza eta Enplegu arloko bulegora jo dezake (Villa Mirentxu, Donostia etorbidea 3, 943-376183) edo Enplegu Bulegoko telefono zenbakira deitu dezake, 943-360283. Bertan ikastaro horri eta beste batzuei buruzko informazio gehiago jasotzeko gain, eskaera orria bete ahal izango da. •

# ‘Unaxen lanarekin oso gustura agertu zen Roberto Caston pelikulako zuzendaria’

Nerea EIZAGIRRE

**H**omosexualitatea euskaraz jorratzen duen lehenengo filma dugu *Ander*. Berdinu gay, lesbien eta transexualen arretarako euskal zerbitzuak sustatuko pelikula da eta askok euskal *Brokeback Mountain*-a dela diote. *Anderen* 4 urteko lasarteoriatar batek papertxo bat dauka, Reme prostitutaren semea. Haurra Unax Martin dugu eta bere gurasoekin, Mixel Martin eta Raquel Sanchez-ekin hitz egin dugu papera eta grabaketaren nondik norakoak jakiteko.

## Zergatik bururatu zitzaizuen Unax *Ander* pelikularako aurkeztea?

Nire lankide bat administratibo lanak egiten ditu Donostiako agentzia artistiko batean eta laneko biri haurren argazkiak agentziara eramatera animatu gintuen, batzuetan arropa katalogoak etab. egiteko haurrak behar baitituzte.

Agentziara joan ginean, Unaxek urte eta erdi zituen. Bat batean ekainean Eusko Jaurlaritzak babestutako pelikula batetarako 4 urtetako haurra behar zela deitu ziguten, 4 ume aukeratu zituztela eta horietako bat Unax zela.

Honetaz gain, haurraren argazkiak eguneratu behar genituela ere esan genituen. Argazkiak eguneratzea ez zen zaila, Donostira joan eta kitto, baina grabaketa bat ere egin zuten. Ostean Bilbora joateko esan ziguten.

## Nolatan hautatu dute Unax bertan parte hartzeko?

Haur argala bilatzen zuten eta Unaxek baldintza hori bete zuten du. Gainera, agentzian grabatutakoa zuzendariari bidali zioten, honi gustatu eta Bilbora joateko eskatu zigun. Filmazio ekipo osoa ezagutu genuen. Haurra ongi moldatu zen eta, honetaz gain, kimika egon zen haurra eta bere amaren papera egin behar zuten aktorearen artean. Honela, Unax hautatu zuten.

Hala ere, hasieran uko egitea pentsatu genuen. Lan gehiegi zen, nik ez dakit gidatzen eta Mixel lanean hasten zen. Hara joateko arazoak izango genituen, alaba txikia etab. Baina arazorik izanez gero, haiek kotxea jarriko zigutela esan zuten. Askok pentsatu ostean, baietza eman genuen.

## Hasieratik al zenekiten filmaren gaia zein zen?

Aukeratu izan ostean, azaldu zizkidaten argi eta garbi pelikularen nondik norakoak eta Unaxen papera.

Ez dakigu zergatia, agian nik ezetza esango nuelakoan zeuden, zeren eta pelikula Berdinu gay, lesbien eta transexualen arretarako euskal zerbitzuak sustatutakoa da eta bertan prostituta baten semearen papera egiten baitu.

## Non egin zen grabaketa?

Bizkaian egin da, Arratiako haraneko herrixka batean, Zeanurik eta hara joan behar izan ginen grabatzera.

Gainera, nahiz eta filmean baserri bakarra agertu, eszenak baserri desberdinetan egin ziren. Motel batean ere egon ginen.

## Grabaketa noiz egin da?

Udaran izan da, ekainaren 26tik uztailaren 25era, hila-bete. Baina haurrak 7 agerraldi ditu eta horiek bost egunetan grabatu ziren. Eguzi batzuetan eszena bakarra zuten, besteetan bi.

## Bost egun horietan bertan egon zineten?

Ez, Unaxen grabaketa egunetan joaten ginen soilik. Hala ere, gau batean han geratu behar izan ginen lo egitera. Eszena gaez grabatu behar zen, errepideko motel batean eta ilundu arte itxaron behar izan genuen. Errepikapenak direla, ekipoa mugitu behar dela, etab. luzerako eman zuten grabaketak.

## Zeintzuk dira bere agerraldiak?

Bi eszenatan baserriko sukaldetan jaten agertzen da, batean bere amarekin eta bestean bikote protagonistarekin. Borrokaren eszena ere baserrian da. Eta besteak, motelean dira, bata sartzen bere "amaren" besoetan lo eta beste lotan ohean.

## Bere agerraldietan ez du hitzik esaten?

Ez. Ume bat agertzea nahi zuten, prostitutaren semea. Amak hitz egiten dio, baina Unaxek ez du erantzuten. Gainera, pelikulan ez du izenik, Remeren semea edo haurra da. Hala ere, antzeztu behar zuten, lo zegoela edo bazkaltzen ari zelaren itxura egin behar zuten.



Unax Martin eta Mamen Rivera, bere amaren papera egiten duen aktorea eszena baten grabaketa hasi baino lehen.

*“Esperientzia positiboa izan da. Kurioso da filma nola grabatzen den ikustea. Hala ere, nik dibertigarriagoa zela uste nuen”*

## Errepikapen asko egin behar izan zituen Unaxek?

Ez ziren asko izan bere erruagatik errepikatutako eszenak.

Esate baterako, bigarren egunean eszena zaila zegoen, borroka bat. Unax bere "amaren" besoetan zihonan eta bi gizon borrokatzen ziren, gezurretako odola eta guzti. Bera eta bere "ama" ere borrokan sartzen dira. Eta oso xeblea izan zen, izan ere, borroka osteko elkarrizketa gizon eta amaren artekoa zen, eta ongi zeuden jakiteko, eta errepikapen batean Unaxek naturaltasunez baietz esan

zuen. Ekipo guztia barrez hasi zen.

Honetaz gain, eszena bakoitza zazpi aldiz edo errepikatu behar da, batzuetan soinu ingeniariak pelikulaz kanpoko zerbitzu entzun dutelako, kotxea bat edo ondoko baserriko haurren ahotsak, bestetan norbaitek bere hitzak gaizki esan dituelako.

Unaxengatik gutxi batzuk izan ziren, nik gogoratzen dudala. Beste batean ni ispiluan ikusi eta amatxo hori dago esan zuten eta noski eszena errepikatu behar izan zen.

## Hainbeste errepikapenekin ez al zen aspertzeko?

Momentu batzuetan aspertu zela onartu behar dugu. Errepikapenak direla eta haurrak ordu bete edo egin behar zuten leku berean. Gainera, eszenak grabatzeko, dena leku batetik bestera eraman eta muntatu beharrek hutsarte asko egotea dakar. Orduan, animaliekin edo ekipoekin jolasten ginen.

## Eta nola moldatu da Unax?

Haurra oso ongi moldatu zen, oso txinto egin zuten esandako guztia.

Grabaketaren ostean,

Robertok, zuzendariak haurraren lanarekin gustura zegoela esan zigun. Oso naturala zela kamara aurrean, haurrak kamerara ez zuela begiratzen eta hori oso ona zela. Kamara handia da eta deigarria da, are gehiago haur batentzat eta ez begiratzea zaila da.

Gainera, grabaketako haur bakarra zenez, pelikulako gehienak haurraren gainean zeuden jolastu edo zaintzeko.

## Nolako esperientzia izan da?

Esperientzia positiboa izan da. Unax ongi moldatu delako. Gainera, kurioso da filma nola grabatzen den ikustea. Hala ere, nik dibertigarriagoa zela uste nuen.

## Noiz izango da *Ander* pelikularen estreinaldia?

Urtarrilaren 30ean da Bilbon. Eta gonbidatuko gintuztela esan zuten. Ahal badugu joango gara.

## Eta etorkizunari begira, Unaxek beste pelikularik edo egingo al du?

Agentziko zuzendariarekin harreman handia egin dugu pelikulari esker eta beste lanik izanez gero, pelikula edo katalogoren bat, deituko zutela esan ziguten. •

# Bizikleten festa eta merkatua Okendon

■ Mugikortasun Iraunkorraren Asteko egitarau zabala gaur hasiko da ■ Bigarren eskuko bizikletak saldu edo trukatu dira ■ 16:00etan abiatuko da Azkorterako bizikleta ibilaldia

Mugikortasun Iraunkorraren Astea burutuko da Lasarte-Orian gaur hasi eta hilaren 26ra bitartean. Gaur arratsaldean bizikleta izango da protagonista eta datorren astean kutsadura arintzeko proposamenak: batetik eraginkorki (gutxiago gastatuz eta

gizatzeke ikastaroa emango da eta bestetik hiribusa herriko kale eta auzoetan ibiliko da goiz eta arratsaldean. Proba bat izango da eta Udalak informazio baliagarria jaso nahi du gerora zerbitzu hau eskaintzeko aukera aztertzen denerako.

Jon ALTUNA

Europa osoan egiten dira garai honetan, mugikortasun iraunkorraren aldeko kanpainak. Lasarte-Orian herritarrak kontzientziatu eta gaiaren garrantziaz konturatu arazteko egitarau zabala antolatuko du Udalak. Gaur bertan hasiko da: 16:00etatik aurrera Okendon egingo den erabilitako bizikleten merkatua eta festa egingo da eta bertan mugikortasun iraunkorrarekin lotutako ekimenen berri emango da: Hirubusa, autoa partekatzeko modua, gidatzean gutxiago kutsatzeko aholkuak,...

Okendo inguruan txirringari izango dira ardatz arratsaldeko 16:00etatik aurrera. Batetik, ordu horretan abiatuko da txirringariaren tropela herrian joan-etorri bat egiteko. Taldeko bizikleta ibilaldi erosoak izango da eta dena den, luzera eta zailtasun ezberdineko bi ibilbide prestatu dituzte antolatzaileek: 16:00etan abiatuko da txikien taldea ibilaldi laburra egiteko eta hori amaitzean egingo da ibilaldi luzea, 10 urtetik gorakoentzat, Azkorte aldera. Taldea elkartzeko eramateko, antolatzaile bat joango da taldearen aurrean, beste bat atzean eta udaltzainen laguntza izango dute.

## Azoka monografikoa

16:00etan hasiko da Bigarren Eskuko Bizikleten Merkatu Txikia ere. 19:30ak bitartean edonork izango du erabiltzen ez dituen bizikleta edo hauen osagarriak saldu edo trukatzeko aukera. Udalarekin batera antolatutako arduratutako Artelatz Mikel Urruzono ordezkariak



Erabilitako bizikletak trukatu eta saltzeko aukera izango da gaur arratsaldeko merkatuan Okendon.

## 17:00-19:30 bitartean Geltoki kalean zirkuitu bat jarriko da bizikletarekin trebetasuna probatu nahi dutenentzat

aurreko ostegunean Asteko programazioa aurkezterakoan esan zuenez lehen aldiz egin da honelako merkatu txiki monografikoa Lasarte-Orian. "Gainera mugikortasuna berrerabilerarekin lotuko dugu".

Azken finean mugikortasun iraunkorrarekin lotutako edozein objektu jarri daiteke merkatuan. Nahi duten guztiei izango da zabalik, eta bertan izateko aukera ez dutenek materiala utzi dezakete goizez 943 670 249 telefono zenbakira deituta. Gero arratsaldeko azken orduan jasoko dute salmentaren dirua ala saldu ez

bada bizikleta Okendon bertan.

Eta merkatuarekin batera 17:00etatik aurrera bizikleta jolasak egingo dira, hau da, herritarrek txirringarekin duten trebetasuna neurtuko da Geltoki kalean 19:30 bitartean.

"Aire Garbia denontzat" da Astearen leloa eta helburua, aldiz "herritarrak kontzientziazte eta gogoeta egitea egungo joerak, ohiturek eta garraio pribatuaren erabilerak osasunean eta ingurumenean daukan eraginaz. Honetaz pentsarazteko antolatuko da Astea", adierazi zuen Ricardo Ortegak, Lasarte-Oriako Ingurumeneko, Kontsu-

moko, Merkataritzako eta Sanitateko departamentuaren arduradunak aurreko ostegunean Astearen aurkezpenean.

## Buzoi berdeak

Ekzer Batuko zinegotziaren ustez, "asteko protagonistia" Hiribusa izango da. Proba moduan, zerbitzua datorren astean doan eskainiko da erdigune eta auzoak lotuz. Gainera erabiltzaileei euren behar eta nahien berri emateko aukera eskainiko zaie.

Mugikortasun iraunkorrari buruz iritzi, iradokizun eta proposamenak jasotzeko buzoi berdeak daude Udaletxe Sarrean, Kultur Etxean, Kiroldegian eta Zaharren Etxean edo Ingurumeneko departamentura bidali daitezke. Ortegak jendearen parte hartzea eskatu zuen prentsaurrekoan.

Datorren astelehena hilaren 22a izendatu dute autorik gabeko eguna eta trafikoa itxita egongo da Kale Nagusia, Ola kaleak bat egiten duen lekutik Tajamar-eko biribilguneraino. Gainera esan bezala astelehenean aurrera Hiru-busa ibiliko da Lasarte-Oriako kaleetan eta bestalde, arratsaldean kultur etxean ikastaro bat eskainiko da autoa gidatzerakoan gutxiago erre eta kutsatu dezagun.

## Bizikleta ibilaldia

Bizikletaren erabilerari bultzada emanaz, bizikletarekin egingo dako jolasen festa, azoka eta irteera antolatuko dira gaurko. Bi ibilaldi egingo dira Okendotik taldean abiatuta.

Bederatzi urte arteko haurrentzat prestatu den ibilbidea Okendon hasi, kale nagusitik segi, Txartel pasa, gasolindegia baino lehen eskubira hartu eta ibai ertzetik itzuliko da Zumaburuko parkean barrena, elizaren atzekaldetik berriro kale nagusira eta Okendora.

10 urtetik gorako haurrentzat ibilbide luzeagoa prestatu dute antolatzaileek Azkorte aldera. Okendotik Kale Nagusira irten eta Udaletxe parean ezkerrean hartuko dute Boko kale guztia egiteko (kiroldegi aurreko bidea), Loidiko tunela zeharkatu eta Loidi kaletik igo Plazaolako bidegorria sartzeko, Bidegorrian zehar Azkorte bidearekin elkartu arte. Gero industrialderatze jaitzi, gasolindegia pasa bezain laster ezkerretarantz hartuz (eskailera mekanikoen parean), Zumaburuko parkea gurutzatu eta berriro Kale Nagusira eta Okendora itzultzeko. •

EUSKARAREN MARATOIA 7

Korritzeko modukoa!

Animatu eta hartu parte maratoiean!  
Eman izena web orrian!

www.euskararenmaratoia.com

Kirolerako agenda

FUTBOLA

Larunbata 20

**09:30ean**, Zarautz-Ostadar (Emakumezkoen KDT F-11) Asti-Txiki, Zarautzen.  
**12:00etan**, Kostkas M.B.-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila) Matigoxotegin.  
**16:00etan**, Segura-LOKE Texas Lasartearra (Jubenilen I. maila) Alustizan (Segura).  
**16:30ean**, Danena-Ostadar (II. Erregionala) Elbarrena, Zizurkil.

**10:00etan**, Ostadar-Real Union Club Sad (Kadeteen Ohorezko maila) Michelinein.  
**15:30ean**, Ostadar-Vasconia (Emakumezkoen Jubenil eta senior FI I) Michelinein.  
**17:15ean**, LOKE Texas Lasartearra-Ordizia (II. Erregionala) Michelinein.

Igandea 21

**10:30ean**, Ostadar-Intxurre (Jubenilen I. maila) Michelinein.  
**11:30ean**, Ostadar-Hernani (Infantil txikiak) Michelinein.



PILOTA

Ostirala 19

**20:00etan**, Olalde-Intza (Eskuz binaka II. Seniorra) Antzuolan.

BOLO-JOKOA

Igandea 21

**10:00etatik aurrera**, (Martin Egaña Santi Garcia V. memoria) Michelinein.



# Ostadar K.Fk eta Indartuz-ek lankidetzaz hitzarmena sinatu dute

Lasarte-Oria Bai Kros Herrikoia prestatzeko entrenamenduak eta Indartuz zentroaren zerbitzuaren beharpenak izango dituzte korrikalariak

TXINTXARRI

Ostadar Kirol Fundazioak eta Indartuz Prestakuntza Fisikoa zentroak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Lasarte-Oria Bai Kros Herrikoia XIII. edizioari begira. Hitzarmenaren ondorioz, urriaren 26an jokatuko den lasterketan parte hartzen duten korrikalariak zerbait abantaila izango dituzte.

Ostadar Kirol Fundazioak eta Indartuz-ek sinatutako akordioarekin Lasarte-Oria Bai Kros Herrikoian parte hartzen duten korrikalariak aterako dira irabazten. Hitzarmenaren jasotzen denez, datorren astelehenean, hilaren 22a, aurrera korrikalariak lasterketa prestatzeko entrenamendu taula izango dute [www.ostadarkf.org](http://www.ostadarkf.org) helbidean. Horretaz gain, korrikalariak beharpenak izango dituzte Indartuz-ek eskaintzen dituen fisioterapia zerbitzuaren.

Ostadarreko arduradunek positibotzat jo du Indartuz-ekin sinatutako akordioa. "Korrikalariak ahalik eta zerbitzu hobea ematea da gure helburuetako bat. Urteko urtera gauza gehiago eskaintzen ahalegintzen gara, eta hitzarmen honekin uste dugu beste urrats bat emango dugula. Oraingo zerbitzuak gainera, atletismoarekin zerikusi zuzena du".

Borja Apeztegiak, Indartuz Prestakuntza Fisikoa zentroko kudeatzaileak, zerbitzuaren nondik norakoak azaldu ditu. Lehenik eta behin, argi utzi nahi izan du entrenamendu taularen helburua ez dela inoren errendimendu maila hobetzea. "Eskaini behar



lako edizioan 1.130 korrikalariak hartu zuten parte.

duguna ez da entrenamendu pertsonalizatu bat, krosa modu osasuntsuan egiteko oinarriko entrenamenduak dira. Gure aholkuak jarraitzen dituztenek lasterketarekin disfrutatzeko aukera gehiago izango dute, lesioak izateko arriskuak murriztuz".

Entrenamendu taula astelehenean zintzilikatuko dute Ostadar Kirol Fundazioaren web orrialdean ([www.ostadarkf.org](http://www.ostadarkf.org)). Sei asteko entrenamendu taula izango da. "Ahalik eta entrenamendu bariatuak tartekatzen saiatu gara. Bertara jotzen duten korrikalariak denetarik aurkituko dute: korrika saio laburrak, errepikapenak, luzaketa arriketak, eta abar", aurreratu du Apeztegiak.

Honetaz gain, taularen erabilpenaren inguruan sor daitezkeen zalantzak argitze-ko indartuz@indartuz.com posta elektronikoa erabil daiteke eta ahal bezain laster [www.indartuz.com](http://www.indartuz.com) web orriko "Foroa" atalean erantzunak ipiniko dira, zalantza berdinak izan ditzakeen edonork irakurri ahal izateko.

Beharpenak Indartuz-en zerbitzuaren

Hitzarmenaren arabera, Ostadarreko antolatzen duen krosean parte hartzen duten korrikalariak zerbait behar izango dituzte Indartuz-ek eskaintzen dituen zerbitzuaren. Lasterketan parte hartzen duten korrikalari guztiak %20eko beharpena izango dute fisioterapia zerbitzuan.

Horretarako, Indartuz-ek Blas de Lezo kaleko 2. zenbakian duen egoitzan ordua hartu behar dute (943 115914 telefono zenbakian ere eska daiteke) lasterketa amaitu eta ondorengo bi asteetan. Lasterketan izena eman dutela egiaztatzeko dortsala aurkeztu beharko dute.

Era berean, lasterketako lehenengo bi lasterkiak, gizonen eta emakumezkoen mailan, eta lehenengo elbarrituak %25eko deskontua izango dute 6 hilabeteko prestakuntza fisikoan.

Deskontua erabiltzeko epea 2009ko abenduaren 31ean bukatzen da eta lehen sailkatuek ezezkoa ematen badute, deskontua bigarren postuan iritsi direnek baliatu ahal izango dute. •

Kirolerako oharra

Kiroldegiko neguko ordutegiak

Kirolen udal zerbitzuak jakin arazi du kirol guneak neguko ordutegia dutela. Kiroldegia astelehenean ostiralera 7:00tik 22:30etara irekia egongo da, larunbatetan 9:00tik 20:00ra eta igandeetan 9:00tik 13:00ra; igerilekua, berriz, astelehenean ostiralera goizez 7:00tik 12:30etara eta arratsaldez 14:00tik 21:30etara, larunbatetan 9:00tik 13:00ra eta 16:00etatik 20:00ra eta igandeetan 9:00tik 13:00ra erabilgarria izango da eta

Michelingo kirol gunea astelehenean ostiralera 15:00tik 22:00ra, larunbatetan 9:00tik 20:00ra eta igandeetan 9:00tik 13:00ra.

Emakumeen kirola sustatzeko diru laguntzak

Lasarte-Oriako Udalak kirol federatuen emakumeen partizipazioa indartzeko asmoz, Kirolen Batzordeak 18.000 euroko zenbatekoa duen laguntzen egitasmoa onartu du.

Irailaren 30ean amaitzen zaie herriko kirol elkartei Kirol federatuen emakumeen partizipazioa

indartzeko asmoarekin sortutako laguntzen eskaera aurkezteko epea.

Laguntza hauek arautzen dituzten oinarriak interesaturik dauden elkarteentzat eskuragarri daude Udalaren Kiroldegiko bulegoan.

XXVI. Areto-Futbol Txapelketa

Ostadar Kirol Fundazioak Areto-Futboleko XXVI. Txapelketan parte hartzeko izena emateko epea zabaldu du, beraz txapelketa herriko honetan parte hartu nahi

duzenok Ostadarreko bulego berrian, Geltoki kalean 25. zenbakian, eman behar duzue izena hilak 19 baino lehen, 19:00etatik 20:00etara. Gehienez 30 talde onartuko dira.

LOKEko tenis eskola

LOKEko tenis eskolak entrenamenduak hasi ditu eta 7 eta 8 urtetako taldean lekua dago oraindik. Beraz, talde honetan izena emateko epea ireki da, Michelingo kirol gunean egingo da astelehenean ostegunera, 18:30etatik aurrera.

Egunero

**Erakusketa**

NOELIA CRUJEIRAS margolaria-  
ren margoak erakusgai. Jalgi  
kafe-antzokian, egun osoan.

Ostirala, 19

**Musika**

ROCK JAM SESIOA SIXTY SEXERS  
talde beratarrekin. Jalgi  
kafe-antzokian, 22:30ean.

EUSKARAZ.



Larunbata, 27

**Jaialdia**

Lasarte-Oriako V. Nazioarteko  
Akordeoi Jaialdia ospatuko da.  
Herriko Zero Sette orkestraz  
gain, Orosz Zoltán hungaria-  
ria eta Sabadelleko konterba-  
torioako akordeoi orkestra  
izango dira kulturetxean  
19:30ean. Sarrera 4 euro.



*Bullying-ari buruzko hitzaldia*

Xabier Arrazola psikologoak eskolako jazarpena den *Bullying-a nola sahiestu eta tratatu* azalduko du kulturetxean hitzaldi batean.

OSTEGUNA 25, 19:00ETAN  
KULTURETXEAN  
GAZTELANIAZ

**Oharrak**

**Tenerifera bidaia**

Biyak Bat zaharren egoitzak  
Tenerifera bidaia antolatu du  
urriaren 14tik 24ra. Izen emate  
Biyak Bat egoitzan. Txan-  
goak egiteko aukera egongo  
da, hala nola, Teideko parke  
nazionalera edo Santa Cruzera.  
Prezioa 599 eurotako da.

**Parrokiako Katekesia**

Katekesia egin behar duten  
haurren izena irailaren 17tik  
aurrera eman behar dute San  
Pedroko parrokiaren edo 943  
37 30 08 / 669 76 22 52 tele-  
fonoetara deituta.

**Usurbilgo Lanbide Eskola**

Irailaren 29an Usurbilgo Lan-  
bide Eskolan teoria zein  
enpresa praktikaz osaturiko  
OFFICE ikastaro bat hasiko  
da, Txekinbide antolatuta.  
Informazio gehiago 943 364  
600 telefonoan.

**Margo eta marrazki  
ikastaroak**

Lasarte-Oria Bizilagunen  
elkarsteak antolatzen dituen  
margo eta marrazki ikastaro-  
tako izen-emateko epea  
zabaldu du: irailaren 15, 16  
eta 17ean, 17:00etatik  
19:00etara, I. de Loyola 12n.

**Alboka abesbatza**

Alboka abesbatzak ikasturte-  
ari hasiera eman dio eta 6 eta

65 urte arteko herritarrak ani-  
matu nahi ditu parte hartzera.  
Helduen entseguak astelehe-  
na eta ostegunetan 20:00eta-  
tik 21:30etara burutuko dira,  
Arantzazuko Ama elizazpiko  
aretoan. Alboka txiki haurren  
abesbatzak, berriz, ostegune-  
ro ordubeteko saioa izango  
du 19:00etan hasita.

**Odola ateratzeak**

Udararen ondoren hilabete  
honetan bestetan bezala odol  
ateratzeak hileko azken astele-  
henean, irailaren 29an egingo  
dira Osasun Zentroan,  
18:30etik 21:00etara. Anima-  
tu, odola ordezkazina da eta!

**Oriatarren bazkaria**

Irailaren 28 igandean oriatar  
eta lagunak bazkaria egingo  
dute Txixardin Beltza jate-  
txean. 12:00etan Solano  
musika eskolako trikitilariak  
arituko dira eta 12:30ean (sal-  
buespen moduan) On Ramon  
Uribetxeberriak zuzenduriko  
meza Karmengo kaperan.  
Bertan Pilar Catalina sopra-  
noa eta pianoan Amaia  
Dorronsoro izango dira.

**Elkarretaratzea Donostian**

Irailak 26an, ez da Lasarte-  
Orian azken ostiralero  
elkarretaraterik egingo.  
Aldiz, Preso, Errefuxiatu eta  
Errepresaliatuen Senideek,

Donostiako Konstituzio pla-  
zan elkartuko dira 20:00etan.  
Zinemaldiaren atarian egin  
asmo dute elkarretaratzea.  
Eta, parte hartzera deitu dute.

**Xumela korua**

Ikasturteari hasiera emanez,  
gaurtik hasita, astelehenero  
bilduko dira Xumela koruko  
kideak. Astelehenero arratsal-  
deko 19:30ean bilduko dira  
Landaberri BHIko egoitzan.  
Interesa duenak agertzea bes-  
terik ez du.

**Txokotako argazkiak**

Udaran, uztaila eta abuztuan,  
Ttakunek antolatutako txoko-  
tan egondako haurren argaz-  
kiak jasotzen dituzten Cdak  
urriaren 6tik aurrera eskuratu  
ahal izango dira Ttakunen  
ludotekan. Orduetgia:  
17:00:20:00etara.

**Oztanbide Auzo Elkarteak**

Oztanbide Auzo Elkarteak  
Arranbide eta Oztarango bizi-  
lagun guztiak bilera batera  
deitzen ditu. Bihar, irailaren  
20an, egingo dute bilera, goi-  
zoko 11:00etan Arranbideko  
10. zk-n.

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
txinxarri@ttakun.com  
Geltoki kalea 4, behe

**Eskutitzak**

**Gazte ahazte lekua**

Kurtsu berria, erronka  
berriak; kurtsu berria herri-  
tar inozoak engainatzeko  
gezur berriak; iturria noski,  
betikoa: kortijoa kudeatzen  
duen "hay untamieto" a.  
(untamieto de untar).

Ostiraleko Txintxarriren  
azala ikustearakin batera  
agertu zait irribarrea ezpa-  
inetan: zer eta "gazteria  
saila" delakoa ikerketa egi-  
ten ari omen Lasarteko gaz-  
teon egoera zein den  
aztertze aldera. Kar, kar,  
irribarretik barrera eta  
barretik explikagaitz zaidan  
idazteko behar honetara.  
Izan ere, halako norabide  
"kurioso" bat hartua du  
"hay untamieto" ak azken  
urteotan herriko gazteei  
dagokienez, noraezean  
dabilen karramarroa irudiz.  
Izan ere, alternatibaren  
abanguardia harturik, "gaz-  
teria saila" delakoaren  
eskutik, "hay untamieto" ak  
gazteok paitzen dugun balizko  
noraeza zuzentzeko hautua  
egin baitu alternatiba  
mordo bat plazaratuz,  
herriko gazteon gozagarri.  
Gaztelekuaren kontua  
kasu.

Ironiak ironia, barruan  
bor-bor dabilzkidan hain-  
bat gauza aipatu nahi  
nituzke:

Herriaren kudeaketara-  
ko ente publikoak hartu  
duen dimentsio neurri-  
gabea. Beraiek nahi dutenean  
egin, nahi dutenean dese-  
gin... herri hau kudeatzen  
duten sasipolitikariek herri-  
tarron bizkarrera barre egi-  
teko gehiegizko  
erraztasuna hartu dutelako-  
an nago... gazteon kasuan,  
2008ko irailean publikoki  
lehen aldiz gazteoi zuzen-  
datu gune publiko baten  
sorretaren berria zabaltzea  
nahiko paradoxikoa irudi-  
tzen zait. Izan ere, urte  
luzeak dira Lasarteko gaz-  
teriak herriko gabezia  
nabarmenen aurrean kole-  
ktiboki antolatu eta alterna-  
tibak plazaratzeko hatua  
egin zuenetik, hainbat dire-  
larik adibideak: egungo  
emakumezkoen gunea  
kokatua dagoen lokalaren  
okupazioa, 1994an oker ez  
banago, Lasarteko Gazte  
Asanbladaren eskutik.

Jende askok izango ditu  
gogoan orduko gora-behe-  
rak. Herrian urtetan zehar  
izan diren Gaztetxeak.  
Txorimalo Gazte Kolekti-  
boa, praktikan eta urte  
luzetan zehar herriko gaz-  
teok izan dugun instituzio  
erreal bakarra, gure kez-

kak, alternatibak plazarat-  
zeko sortu zen plataforma  
kolektiboa. Paradoxikoa  
noren, ulergaitza ez esatear-  
rioren, izan ere, ez ote da  
egungoa baina momentu  
hoberik izan herriko gaz-  
teekin hitz egin, beraien  
kezketaz arduratu eta "hay  
untamieto" ak, bere lana  
izaki, gazteoi nola halako  
bide bat emateko? Alegia,  
zergatik orain, noren esku-  
tik eta zeinentzat?

Honek orain 5-6 urte-  
ko kontu bat dakarkit buru-  
ra. Txorimaloren  
osteguneroko asanblada  
batean herriko gazte batzu-  
ren deia jaso genuen asan-  
bladari buruzko hainbat  
galdera egin nahi zizkigu-  
tela esanez. Azaldu ziren  
ba gazte haiek asanblada-  
ra, eta guk beronen fun-  
tzionamendua, gure kez-  
kak eta motibazioak zein  
ziren azaldu genien. Gazte  
hauek urte batzuren buruan  
udaletxeko "gazteen kale  
hezitzaile" figurarekin hasi  
ziren lanean. Egun, horieta-  
ko bat behintzat gaztele-  
kuari buruzko ikerketa  
egingo duen "lan talde" ko  
kide da. Teorian, hain  
urrun ez gaudenaren seinale...  
praktika da kezkatzen  
nauena ordea.

"Hay untamieto" ko gaz-  
teria saila konstziente da  
Lasarteko gazteontzat ez  
duela legitimitate zipitzik  
ere eta beraz, bere inguru-  
peña enrollatu eta alternati-  
boa hartu eta inorekin kon-  
tatu gabe gazteon salbazio  
izango den gunea sortzera  
abiatu da, toma moreno!  
Orain ere kortijoa nahi eran  
egin eta desegin...

Herriko gazteen hezike-  
ta, balore, aisialdi eta  
borroketan hain garrantzi-  
tsua izan beharko lukeen  
balizko gune hau planteat-  
zen ari den moduak  
sakonki arduratzen nau, zu  
ez?

LASARTEKO GAZTE BAT

# Ludotekan lagunekin saltsan

■ *Gaurko eta betiko jolasak* Amaraun ludotekako erronka nagusia aurten

TXINTXARRI

2 eta 8 urte bitarteko haurrentzako programa zabala eskaintzen du aurten Amaraun ludotekak. Lagunartean jolasean oinarritutako proiektua aurkezten dute ludotekako arduradunek. Elkarbizitza bultzatzeaz gain, aisialdiko jolasen bitartez haurren garapena lantzea da ludotekaren helburua. Eta hau guztia, euskararen erabilera eta eza-gutza sustatuz.

## Ludotekako programa

Haurrek eskulanak, jostailuen tailerrak, jostakirola, txontxongiloak, ipuin kontaketa, etab. izango dituzte Amaraun ludotekan, baita haur hezkuntzako enpresen gaupasa eta lehen hezkuntzako irteerak eta asteburu pasak ere. Aurten gainera larunbatetan ekintza bereziak prestatuko direla ere aipatu digute ludotekako arduradunek.

Amaraun ludotekak eskaintza irekia du, astelehenetik ostegunera joateko aukera ematen du eta, arduradunek jakin arazi digutenez, haur hezkuntzakoek bi txanda izango dituzte bata 17:00etatik 19:00etara eta bestea 18:00etatik 20:00etara; lehen hezkuntzakoek berriz, bakarra, 17:30etatik 19:30etara. Larunbatetan guztiak 11:00etatik 13:00etarako ordutegia izango dute.

## Berrikuntzak

Honetaz gain, ludotekak espazio antolaketa berria izango du eta gurasoen parte-hartzea onartu eta bilatuko da. Hone-tarako, jolas eta eskulan ikastaroak antolatuko dira.

Aurten gainera jolaserako denbora eta espazioa berreskuratuko da eta horregatik erronka nagusia gaurko eta betiko jolasak izango dira.

Azpitarragarria da Amaraun ludotekan izena ematen duten haurrek zuzenean lortzen



dutela Amaraun klubeko bazkidetza. Beraz, urtean hirutan klubeko aldizkaria iritsiko zaie etxera, honetaz gain, klubeko produktuak eskuragarri izango dituzte eta klubeko ekintzetan parte hartu ahaliko dute, hala

nola, Amaraun jaialdian.

## Matrikula

Irailaren 22an irekiko da matrikula egiteko epea. Izena ematea internetez egin daiteke [www.ttakun.com](http://www.ttakun.com) web

orrian edo Ttakuneko bulegoan bertan orriak entregatuz, baita Amaraun ludotekan ere.

Edozein zalantza dela ere 943 371 448 telefono zenbakian arduradunekin harremanetan jarri zaitezke.

# Euskara ikasteko aukera

Diru-laguntzak  
**%40 - %75**  
2008-09

# ona eta merke

**Edozein lasarte-orientarrentzat matrikularen %40 arteko diru-laguntza. Gurasoentzat, merkatarientzat eta begiraleentzat %75 artekoa.**

## Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Ganbo kalea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: [euskaltegia@lasarte-oria.org](mailto:euskaltegia@lasarte-oria.org)
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 19ra

## Munteri-AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behea
- Telefonoa: 943 372 863
- e-maila: [lasarte@aeknet.net](mailto:lasarte@aeknet.net)
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 26ra

## Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: [euskara@lasarte-oria.org](mailto:euskara@lasarte-oria.org)



LASARTE-ORIAKO UDALA